



**EUSKO LEGEBILTZARREKO OSOKO BILKUREN ARETOKO PANTAILEN ETA KAMEREN HORNIKUNTZARAKO ETA INSTALAZIORAKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEEN AGIRIAREN AZALEKO ORRIA**

**Espediente zk.: 06-900-08**

**Kontratazioaren xedea:** Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuren aretoko pantailen eta kameren hornikuntza eta instalazioa. Oinarri teknikoetan definitutako xedeak betetzeko kable, ekipamendu osagarri eta programa guztiak ere hartzen ditu barne.

**Prozedura:** Hornidurak prozedura irekiaren bidez kontratatzea.

**1.- KONTRATUAREN XEDEA, HORNIDURAK BEREKIN DAKARTZAN ONDASUNEN DEFINIZIOA:**

**1.1.- Jardueren araberako produktuen sailkapen nazionalaren (CPA-2002) nomenklaturari dagokion kodea adieraztea:** 30.02.1

**1.2.- CPVko erreferentzia-zenbakia (Batzordeak 2003ko abenduaren 16an emandako 2151/2003 (EE) Erregelamendua):** 30231000-7

**Nomenklatura nagusia**

**Xede nagusia**

- Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuren aretoko pantailen eta kameren hornikuntza eta instalazioa.

**1.3.- Kontratu-izaera izanik, espedienteari atxiki zaizkion dokumentuak adieraztea:**

Administrazio-klausula berezien agiria.

Klausula teknikoen agiria.

Kontratua (esleipena egin eta gero).

**1.4.- Bete beharreko administrazio-beharrak:** xede nagusian azaldutakoak.

**1.5.- Loterik badagoen (bai/ez):** Ez

a) Loteetara lizitzatzeko arau berezirik (bai/ez):

a) Loteak esleitzeko arau berezirik (bai/ez):

**1.6.- Bariantek sartzeko aukerarik (bai/ez):** Bai.

**2.- KONTRATAZIO ORGANOA:** Eusko Legebiltzarreko Mahaia.

**3.- ESPEDIENTE ZENBAKIA:** 06-900-08

**4.- ERREGULAZIO HARMONIZATUARI LOTUTAKO KONTRATUA DEN (bai/ez):** Bai.

**5.- ONDOKOEI ERRESERBATUTAKO KONTRATUA DEN:**

- Enplegu-zentro bereziei (bai/ez): Ez.

- Enplegu babestuko programen barruan egikaritzeko (bai/ez): Ez.

Erreserbak eskakizun du kontratuaren eragina izango duten langileen % 70 gutxienez ezintasunen bat dutenak izatea, betiere ezintasun horiek lanbide-jarduera egoera normalean burutu ahal izatea eragozteko modukoak edo hori eragozterainokoak badira.

**6.- PRESAKO TRAMITAZIOA (bai/ez):** Ez.

**7.- LIZITAZIO ELEKTRONIKO BIDEZKO PROZEDURA BAIMENTZEN DEN (bai/ez):** Ez.



**8.- KONTRATATZAILEAREN PERFLA. KLAUSULA AGIRIAK ETA GAINERAKO INTERESEKO AGIRIAK ETA ENPLEGU, INGURUMEN, ETA EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO INFORMAZIOA NON LOR DAITEZKEEN:**

**8.1.- Kontratatzailearen perfila:** Erakundearen web-orrian izango da eskuragarri, eta bertan kontratazio-organoaren kontratu-jarduerari buruzko datuak eta informazioa jasoko dira.

**8.2.- Klausula-agiriak eta gainerako agiriak non lor daitezkeen:**

**Web-orria:** [www.parlamento.euskadi.net](http://www.parlamento.euskadi.net) (Datawebgunea/zerbitzuak/lizitazioak)

**Harremanetarako:** Mantentze Lanen Atala

**Telefonoa:** 945 004286

**Faxa:** 945 135406

**E\_mail:** monton@parlam.euskadi.net

**8.3.- Enpleguaren babesari, ingurumenari eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko informazioa:**

Enpresa lizitatzailerak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzan informazioa jaso ahal izango du enpleguaren babesaren, lan-baldintzen eta lan-arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dauden xedapenei buruz – kontratua egikaritzean aplikatu beharrekoak–, bai eta, hala badagokio, kontratuaren agirietan aurreikusitako klausula gehigarriak ere.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen Sailburuordetzan, IHOBE sozietate publikoaren bitartez, informazioa jaso ahal izango du ingurumenaren alorreko indarreko xedapenei buruz –kontratua egikaritzean aplikatu beharrekoak–, bai eta, hala badagokio, kontratuaren agirietan aurreikusitako klausula gehigarriak ere.

Era berean, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoan informazioa jaso ahal izango du emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko indarreko xedapenei buruz –kontratuaren egikaritzeari aplikatu beharrekoak–, bai eta, hala badagokio, kontratuaren agirietan aurreikusitako klausula gehigarriak ere.

**9.- LIZITAZIO AURREKONTUA:**

**9.1.- Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorreko 71.6.b) artikulua** aipatutako kontratuetan zenbateko gastua egin daitekeen gehienez: 260.000 euro.

**9.2.-** Prezioaren zati bat Administrazioak eman beharreko ondasunekin ordaintzen bada, ondasun horiei dagokien lizitazio-aurrekontuaren zenbatekoa (SPKLren 270. artikulua):

**10.- AURREKONTUKO DIRU IZENDAPENA (hala badagokio, urteka banatuta):** 2008ko eta 2009ko aurrekontuetako 064305.00 kontu-saila (ekipo bereziak).

**11.- HORNITZE LANAREN IRAUPENA ETA/EDO GURE ESKU UZTEKO EPEA:** 10 aste, kontratua formalizatzen denetik hasita.

**11.1.- Tarteko epeak:** Ez dira ezarri.

**12.- KONTRATUA LUZATZEA (bai/ez):** Ez da aurreikusi.

**12.1.- Zenbat aldiz luza daitekeen:**

**12.1.- Luzapen bakoitzaren iraupena:**

**13.- ORDAINTZEKO MODUA:** Esleipenaren gutzizko zenbatekoari dagokion transferentzia, hartutako ondasunak behin betiko jaso izanaren akta egindakoan.

**14.- KONTURAKO ABONUAK:** Ez dira ezarri.

**14.1.- Kontura ordain daitezkeen eragiketak zein diren:**

**14.2.- Prestatze-eragiketak baloratzeko irizpideak eta modua:**

**14.3.- Konturako ordainketak kitatzeko plana:**

**14.4.- Jarri beharreko bermea:**



- 15.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA (bai/ez):** Ez da aurreikusi.  
**15.1.- Aplikatzeko metodo edo sistema:**  
**15.2.- Fabrikazioko hornidura-kontratua, zein kontratu-eredu aplikatu daitekeen:**
- 16.- PREZIOA ALDATZEKO KLAUSULA, EPE EDO ERRENDIMENDU MAILAKO ZENBAIT HELBURU BETETZEAREN ARABERA (bai/ez):** Ez.
- 17.- BERMEAK:**  
**17.1.- Behin-behineko epea:** Ez da ezarri.  
**17.2.- Behin betiko bermea:** esleipenaren prezioaren % 4.  
**17.3.- Berme osagarria:** SPKLren 83.2 artikuluko kasua.
- 18.- PUBLIZITATE GASTUEN ZENBATEKOA:** Eskaintza honi ez dagokio horrelakorik.
- 19.- AZPIKONTRATATZEKO GEHIENEZKO EHUNEKOA:** Ez dago azpikontrataterik.
- 20.- HORNIDURA NON EMAN BEHAR ZAIGUN:** Eusko Legebiltzarra, Becerro de Bengoa kalea, z.g, Vitoria-Gasteiz 01005.
- 21.- HERRI ADMINISTRAZIOEN KONTRATUEN LEGEAREN ERREGELAMENDU OROKORREKO 67.5.c) ARTIKULUAN AIPATUTAKO KASUAN, ADMINISTRAZIOAK ZAINTEKO ETA AZTERTZEKO DUEN AHALMENA ERABILTZEKO MODUA:** Ohikoa.
- 22.- ONDASUNEN INSTALAZIOA, BERE EZAUGARRIAK ETA AURREKONTU OSOAREN BARRUAN DAGOKION KOSTUA:** Ez da guztizko aurrekontutik bereizten.
- 23.- ONDASUNEN KALITATEARI BURUZ ADMINISTRAZIOAK BERE ESKU UTZITAKO EGIAZTAPENAK:** Hornidura Eusko Legebiltzarrak nahi bezala eman ostean egingo da ordainketa.
- 24.- MATERIALA HARTZERAKOAN, HURA AZTERTZEKO JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA:** Mantentze Lanen Atalak horri buruzko txostena egingo du.
- 25.- SPKLren 196.4 ARTIKULUAN EZARRITAKO ZIGORREZ BESTELAKOAK:** Ez dira aurreikusi.
- 26.- PREZIOA EZ BESTE KONTRATU KLAUSULA BATZUK EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ZIGORRAK:** Hornitu beharreko ondasunak emateko epea, esleipendunak bere eskaintzan zehaztutakoa, bete ezean (Eusko Legebiltzarrari egozteko moduko arrazoiengatik denean izan ezik), esleipenaren zenbateko osoaren % 1eko zigorra ezarriko da atzeratutako egun bakoitzeko.
- 27.- EZ BETETZE PARTZIALEK KONTRATUA SUNTSIARAZTEA EKARRIKO DUTE HONAKO KASU HAUETAN:** Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 30/2007 Legean jasotakoetan (206 eta 275. artikulua).
- 28.- KONTRATU HAU KLAUSULA AGIRIAREN 16.7 KLAUSULAN AURREIKUSITAKO KONFIDENTZIALTASUN ARAUEN MENPE DAGOEN.** Bai.
- 29.- HORNIDURA HARTZEKO EPEA ETA BERME EPEA:**  
**28.1.- Hornidura hartzeko epea:** Gehienez ere 10 aste.  
**28.2.- Berme-epea:** 4 urteko berme-epea ezarriko da.
- 30.- KONTRATUA EGIKARITZEKO HIZKUNTZA BALDINTZAK:**
- Kontratu hau hizkuntza-ofizialtasun bikoitzeko araubideari lotuta dago, hau da, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 6. artikulua eta azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen Erabileraren Normalizaziorako Oinarrizko Legeak eta bera garatzen duen arautegiak araututakoari lotuta.
- Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratua gauzatzeko baldintza da, eta hura ez betetzeak, kontratu honetako edozein klausula betetzen ez denerako orokortasunez aurreikusitako ondorioak ekarriko lituzke.
- Kontratu egikaritzerakoan, agiriaren 16.5 klausulak xedatutakoa bete beharra dago.



**31.- KONTRATUA GAUZATZEKO INGURUMEN EDO GIZARTE IZAERAKO BALDINTZA BEREZIAK (lizitatzailleak III. eranskinean jasotako konpromisoa bete eta aurkeztu beharko du):**  
Horiek ez dagozkio eskaintza honi.

**30.1. Ingurumen-izaerakoak:**

**30.2. Gizarte-izaerakoak:**

**32.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA:**

**Lekua:** Eusko Legebiltzarra, Erregistro Orokorra, Becerro de Bengoa kalea, z.g, Vitoria-Gasteiz 01005. Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara.

**32.1.- Behar izanez gero, eskaintza postaz bidali dela iragartzeko bideak:**

**Faxa:** 945 135406

**33.- PROZEDURAN PARTE HARTZEKO EKONOMIA ETA FINANTZA KAUDIMENA ETA GAITASUN TEKNIKOA DELA ETA BETE BEHARREKO BALDINTZAK:**

**33.1.- Interesdunek ondoren zehaztutako bideak erabiliz egiaztatu beharko dute betetzen dituztela ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa dela-eta ezarritako baldintzak, betiere SPKLren 64 eta 66. artikuluetan ezarritakoaren arabera:**

**b) Egiaztatze bideak:**

**- Ekonomia- eta finantza-kaudimena:**

- a. Finantza-erakundeek emandako adierazpen egokiak edo, halakorik izan ezean, arrisku profesionalengatiko kalteordain-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- b. Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuak. Kontuak erregistro ofizialetan aurkeztu beharrik ez daukaten enpresaburuak, kaudimena egiaztatze bide alternatibo gisa, behar bezala legeztatutako kontabilitate-liburuak aurkeztu ahal izango dituzte.
- c. Negozio kopuruari buruzko adierazpena eta, hala badagokio, kontratuak xede dituen jardueren eremuko negozio kopuruari buruzkoa, gehienez ere sorrera-egunaren edo enpresaburuaren jarduera-hasieraren egunaren arabera, azken hiru ekitaldiei dagokiena, negozio-kopuru horren erreferentziak eskura diren neurrian.

**Gaitasun teknikoa:**

- a. Azken hiru urteetan zehar egindako hornidura garrantzitsuenen zerrenda, haien zenbatekoa, datak eta hartzailea publikoa edo pribatua den zehaztuz. Egindako hornidurak organo eskudunak emandako egiaztagirien edo bisatuen bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, edo hartzailea erosle pribatu bat denean, horrek emandako egiaztagiri baten bidez edo, halako egiaztagiririk izan ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez.
- b. Enpresak kontratua gauzatzeko dituen teknikariak edo unitate teknikoak adieraztea, enpresan integratuta egon edo ez egon; kalitatearen kontrolaz arduratzen direnak adieraziko dira batik bat.
- c. Enpresak dituen instalazio teknikoak, kalitatea bermatze aldera darabiltzan neurriak eta azterketa eta ikerketarako dituen baliabideak deskribatzea.
- d. Sektore publikoko erakunde kontratugileak egindako kontrola edo, haren izenean, enpresaburu finkatuta dagoen Estatuko erakunde ofizial eskudun batek egindakoa, betiere tartean erakunde horren adostasuna badago, hornitu beharreko produktuak konplexuak direnean edo, salbuespen modura, xede partikular bati erantzuteko direnean. Kontrol hori enpresaburuaren ekoizpen-gaitasunaren gainean egingo da eta, beharrezkoa balitz, dituen azterketa- eta ikerketa-baliabideen gainean, bai eta kalitatea bermatze aldera darabiltzan neurrien gainean ere.
- e. Hornigaien laginak, azalpenak eta argazkiak; horien benetakotasuna egiaztatze modukoa izango da sektore publikoko erakunde kontratatzaileak eskatuz gero.

**33.2.- Klausula-agiriaren III. eranskinak baliabide pertsonal eta material zehatzak jasotzen baldin baditu, lizitatzailleak sinatu eta aurkeztu egin beharko du baliabide horiek kontratua**



gauzatzeari atxikiko dizkiola egiaztatzen duen konpromisoa, eranskin horrek dakarren ereduari jarraiki. Eskaintza honi ez dagokio horrelakorik.

#### 34.- ESLEITZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

34.1.- Esleitzeko irizpide bakarra dagoen: Preziarik txikiena (bai/ez): Ez.

34.2.- Kontratua esleitzeko oinarritzat erabili behar diren irizpide objektiboak, garrantzizkoenetik hasita eta emango zaien puntuazioa adierazita zerrenda modura, bai eta irizpideak baloratzeko ezarritako formulak ere (formulak aplikatzearen bidez balora daitezkeen irizpideen balorazioa, balorazioaren azkeneko fasean egingo da).

- Lehiaketaren xedearen proposamen ekonomikoaren balorazioa bere osotasunean: 40 puntu.

- Aurkeztutako proiektua, eskaintako soluzioaren ezaugarri teknikoak, funtzionamenduari eta instalazioa osatzen duten osagaiei buruzko memoriaren balorazioa, baldintza teknikoen agiriaren arabera proposatutako erredundantzia: 40 puntu.

Proposatutako proiektuaren azalpena (memoria)	5	
Agiriak eta planoak	10	
Pantailen diseinua (atrila, teknikoa, lehendakaritza, DCNko emaitzen aurkezpena)	5	
Ekipamenduaren zehaztasun teknikoak	10	
PCn oinarritutako soluzioa (zerbitzarien prestazioak)	5	
Merkatuko ezarpena	5	
Erredundantzia-azterlana	5	

- Zehaztapen teknikoak hobetzea, prestazio gehigarriak: 10 puntu.

- Enpresaren gaitasun teknikoa, batez ere administrazio publikoekiko harremanei dagokienez, eta ondorengo mantentze-lanetarako erraztasunak: 10 puntu.

Guztira

100 puntu.

34.3.- Baloratzean balio-judizio baten arabera kuantifikatuko diren irizpideei lehenetasuna ematea eskatzen duen aparteko kasurik baden (bai/ez): aditu-batzorde bat osatzea edo zehaztutako erakunde tekniko espezializatu batek ebaluatzea. Eskaintza honi ez dagokio horrelakorik.

34.4.- Hala badagokio, esleitzeko irizpide bakoitza zein balorazio-fasetan erabiliko den zehaztea, irizpideon erabilera-ordenaren arabera zenbakia ipinita eta gutxienez zenbat puntu lortu behar diren argituz (prezio edo eskaintza ekonomikoaren balorazioa, balorazioaren azken fasean egingo da). Eskaintza honi ez dagokio horrelakorik.

34.5.- Balora daitekeen irizpide bakarra prezioa denean, beheratzeak ezohikoak edo neurrigabeak diren hautematea ahalbidetuko duten mugak: SPKLren Erregelamendu Orokorraren 85. artikulutik eratorritakoak.

34.6.- Hala badagokio, esleitzeko irizpide bat baino gehiago kontuan hartu behar denean, balio ezohiko eta neurrigabeak hautemateko erabili beharreko irizpide objektiboak.

35.- HALA BADAGOKIO, ESKAINTZA EGITEN DUENAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (azaleko orri honetan 33. puntuan zehaztutako esleitzeko irizpideak baloratzeko):



35.1.- A gutun-azalean sartu beharreko dokumentazioa zehaztuko da, formulen bidez balora daitezkeen irizpideak baloratzeko. Halaber, C gutun-azalean sartu behar dena zehaztuko da, balio-judizio baten arabera kuantifikatuko diren irizpideak baloratzeko.

35.2.- Aipatutako irizpideen artean "hitzartutako betebeharrak ez ezik, bestelako esleitzeko irizpideetan jasota ez dauden zerbitzu gehigarriak ematen dituzten hobekuntzak" kontzeptua ere ageri bada, klausula-agiriaren 7.3.3. klausulan eta II. eranskinean aurreikusitakoari jarraituko zaio eta, finkatuta egonez gero, ondoko muga eta baldintzak hartuko dira aintzat: Horrelakoak aurreikusi dira.

**36.- ENKANTE ELEKTRONIKOA EGITEA AURREIKUSTEN DEN (bai/ez): Ez.**

**37.- ESLEIPENEAN AGIRIAREN 9.4 KLAUSULAN AIPATUTAKO LEHENTASUNAK APLIKATUKO DIREN: Ez.**

**38.- KONTRATUAREN BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK, AGIRI HONETAN ADIERAZITAKOEZ GAINERA: Ez da horrelakorik ezarri.**